

Herrikoak, bigarren xakean

Errenteriarak izan
dira irabazle ▶ 6



la hiru mila euroko mailegua eskatu dute

Kiroldegirako erabili
nahi du Udalak ▶ 4

Lanbide heziketa emateko prest da Institutua


IKASTAROAK ▶ Eskaintza zabala
du aurtén Tolosaldea Goi Mailako
Lanbide Heziketa Institutuak

GAIAK ▶ Formazio espezializatua
bultzatzen ari da, hainbat
sektoretako beharrei erantzuteko ▶ 2

MIKEL BELLOSO ▶ PILOTARIA

«Afizionatu mailatik
profesionaletara
salto handia dago»

Asegarcerekin sinatu du kontratua ▶ 5



La Marra ikuskizuna. HITZA

TOLOSA ▶

Datorren asteen hasiko dira antzerki tailerrekoak

Ilusio handiz ari dira
lanean; izen-ematea
zabalik da Kultur
Etxean ▶ 3

LEITZA ▶

Manifestazio jendetsua izan zen Gudari Egunean, herenegun

Ibilbidea hainbat guardia zibilez
inguratuta egin behar izan zuten ▶ 7

OLAIA ESKITXABEL



HEZKUNTZA ▶

Eskaintza zabalagoa, aurten

Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuan prest dira ikasturte berrirako

IRATXE ETXEBESTE

Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak ikasturte berria aurkeztu du, eskaintza zabalagoa eginez. Aurrerantzean aukera gehiago izango dute ikasleek, hortaz, formakuntza herrian bertan lortzeko. Orokorrean, hiru motatako formakuntza ikastaroak eman izan ditu Institutuak orain arte, eta halaxe egingo du ikasturte berrian ere: hastapena (ziklo formatiboak), okupazionala (langabetuentzat) eta etengabekoa (langileentzat).

Hastapeneko formakuntzari dagokionean, bi mailatako zikloak ematen dituzte Institutuan: erdi eta goi mailakoak, hain zuzen ere. Erdi mailako zikloetan mekanika, elektrizitatea eta galdaragintza eskaintzen dituzte, eta goi mailakoetan, aldiz, mantenua, erregulazioa, mekanika, administratza, informatika eta eraikuntza metalikoa. Bi mila ordutakoak dira ziklo guztiak, eta «hiru hilabeteko praktikak dituzte barnean lantegi ezberdinetan», esan du Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuko Etengabeko eta Okupazionalako formakuntza arduradun Gorka Igartuak.

Okupazionala langabetuei, eta, bereziki, emakumei zuzendua dago; teknika berriak ikasteko aukera ematen dute bertan. Igartuak adierazi duenez, hiru ikastaro daude abian uneotan, «Foru Aldundiko Txekinbide eta Euskal Gobernuako Lanbide proiektuen baitan»: soldadura eta galdaragintza, Lanbide kudeatuta, urrian eskainiko dute eta 520 ordutako izango da; web orrien diseinu eta programazioa Txekinbideak sustatzen du, eta urrian eskainiko dute hori ere, 210 ordutan. Kontuen kudeaketa sistema integrala ere Txekinbideren eskutik emango dute, azaroan, eta antolatzaileen esanetan, 250 orduko ikastaroa da.

Hiru ikastaro horietan izena ematen dutenek aukera izango dute praktikak lantegietan egiteko, eta eskolak arratsaldetan izango direla jakinarazi dute



Ikastaroen eskaintza zabaldu du aurten Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak. HITZA

Formakuntza espezializatua bultzatuz

Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak, Iturri eta Cadem-ekin —Eve taldekoa— elkarlanean, formakuntza espezializatua bultzatzen du «sektore horietan dauden beharrei erantzuna eman nahian». Era berean, langileen maila tekniko hobea lortzea du xede.

Ikastaro zuzenen bidez, lantegi bakoitzak behar duen formakuntza berezia ematen ere saiatzeko dira, eta, modu horretara, «denon artean, edukia, egutegia eta ordutegia erabakitzeak aukera dago, langileek askoz ere egoera hobea izan dezaten», esan du Gorka Igartuak, Institutuko formakuntza arduradunak.

Gaur egun, «on-line ikasteko ohiturak hedatzen ari direnez, Tolosaldea institutuak eLearning-eko bi ikastaro



Gorka Igartua, ikastetxean. HITZA

ditu: erabiltzaile eta kudeatzaileentzat segurtasun digitala. Era honetara, tutore baten laguntza eta zenbait erreminta informatiko (txat, foroak...) erabiltzeko aukera izango du ikasleak.

Bestalde, lantegi txikien eta

langile autonomoen NTIC edo teknologia berrien erabilera bultzatzeko, baliabide horien erabilera eta dituzten abantailak azaltzeko zortzi ekitaldi antolatu dituzte urtean zehar. Miramon enpresa digitalaren laguntzarekin. Informazioa lortzeko eta matrikula egiteko honako telefono zenbakira deitu beharko du interesa duenak: 902 252 595. Web orrialde hau ere ikasleen zerbitzura dago: www.empresadigitala.net.

«Edozein pertsonak beharrezko duen orientazio integrala egiteko prest gaude», esan du Gorka Igartuak: «Azterketa, helburua, esperientzia, aukerak, hautaketa eta jarraipena egingo diogu ikasleari, era horretara Euskal Herriko langileen eta lantegien teknologia maila hobetuko dugulako». ◀

dira eskolak, astelehenetik ostegunera, 18:00ak eta 21:00ak bitartean.

Ikastaro horietan interesa dutenek ikastetxera deitu beharko dute izena emateko: 943 65 11 47. Informazioa nahi dutenek, berriz, ikastetxeko web orrialdean begira dezakete: www.tolosaldea.com.

AISIALDIA ▶

Harizpek hainbat irteera antolatu ditu adinekoentzat

Urrian egingo dituzte irteera horiek; izena emateko aukera dago elkartearen egoitzan

I. ETXEBESTE

Harizpe Jubilatuen eta Pentsiodunen elkarteak hainbat irteera antolatu ditu datozen egunetarako, eta izen-ematea zabalik da horietako bakoitzean. Frias eta Oña (Espainia) aldera egingo dute lehena, urriaren 7an, eta Gariñako zentral nuklearra bisitatuko dute, besteak beste. Irteera hori bazkideentzat izango da soilik, eta 11 euro ordaindu beharko dira bertara joan ahal izateko.

Urriaren 13an Lodosara eta Azagara (Nafarroa) joateko aukera izango dute adinekoek. Lodosan piper enpresa bat ikustera joango dira, eta Azagarako jatetxe batean bazkalduko dute ondoren. Bazkalostean, dantzaldia eta zozketa egingo dituzte. Bazkideek 25 eta gainerakoek 28 euro ordaindu beharko dute izena ematerakoan; elkartearen egoitzara jo behar da horretarako, urriaren 7a baino lehen.

Urriaren 16tik 30era, berriz, oporretara joateko parada dute jubilatuek eta pentsiodunek. Izan ere, Harizpek Benidorm-era irteera antolatu du egun horietarako. 370 euro ordaindu behar dira izena emateko, eta bazkideek 365 euro. Autobusean joan-etorria, egonaldia —14 gau, mantenu osoa ura edo ardoarekin—, bidaia aseguru eta gidaria sartuta daude, besteak beste, prezio horretan. Autobusa beteko balitz, merkeagoa izango litzateke: 354 euro, alegia.

Igandetako dantzaldiak

Harizpe elkarteak zuzendari-tzako kideek azaldu dutenez, igandean, urriak 3, berriz ere hasiko dira igandetako dantzaldiak. Elkarteak Emeterio Arrese kalean duen egoitzan izango dira dantzaldi horiek adinekoentzat, 18:30ak eta 20:30ak bitartean, eta jubilatuek eta pentsiodunek bertara joateko aukera izango dute, betiko moduan. Iribarren taldearen eskutik izango dira igandero dantzaldi horiek.

HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu

943 30 43 46

Edozein kexa, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai

INFORMATIKA ▶

Ikastaro eskaintza zabala KZgunean

Pablo Gorosabel kaleko KZgunean emango dira eskolak, urriaren

L. MONTES

2004-2005 ikasturtea hastearekin batera, ikastaro berriak prestatu dituzte Pablo Gorosabel kaleko KZgunean. Eskaintza zabala da, eta era guztietako ikastaroez gain, mintegiak eta azterketak egiteko aukera ere izango da bertan.

Interneten nabigatzen ikasteko edo ezagueran sakontzeko, hogei eta hamar orduko ikastaroak daude aukeran. Hogei orduko ikastaroa goizez eta arratsaldez eskainiko dute: goizekoa, 09:00etatik 11:00etara, urriaren 13tik 26ra izango da; eta arratsaldekoa, 16:00etatik 18:00etara, urriaren 4tik 19ra.

Hamar ordukoa, berriz, arratsaldez eskainiko da soilik, 18:00etatik 20:00etara; baina bi epe aukeratu ahal izango dira: urriaren 4tik 8ra bata, eta urriaren 13tik 19ra bestea.

Interneteko ikastaroez gain, mintegiak ere izango dira Pablo Gorosabelgo KZgunean. Outlook Express-en funtzionamenduari buruzkoa urriaren 14an izango da, 11:00etatik 13:00etara. Kutxa Basikoa mintegia ere antolatuko dute; urriaren 20an eskainiko dute, 11:00etatik 13:00etara.

Aldi berean, IT txartelako azterketa urrian egin nahi dutenak bi egunetan aurkeztu ahal izango dira: urriaren 8an eta urriaren 25ean. Azterketa egiteko orduetegi bera izango da bietan: 11:00etatik 13:00etara.

Izen-ematea, zabalik

Lehen ikastaroa urriaren 4an hasiko den arren, izen-ematea zabalik da egunotan KZgunean. Ikastaro zein mintegi hauetakoren bat egin nahi duenak, beraz, KZgunera bertara joan besterik ez du (Pablo Gorosabel, 34 —Musika Eskolako eraikina—), edo telefonoz deitu (943 65 37 20). Argibide eta informazio gehiago ere jasoko du bertan.

ANTZERKIA ▶



La Marra ikuskizuna eskaini zuten ekainean antzerki tailerrekoek. HHTA

Antzerki tailerrekoak, ilusio handiz

Urriko lehen astean hasiko dituzte eskolak; izen-ematea zabalik dute

LEIRE MONTES

«Lau txoko. Txoko bakoitzean, beroketa ariketa desberdinak. Ikasleak gelan aurrera eta atzera ibiliko dira, fisikoki prestatzen eta hurrengo faserako kontzentratzen. Aktore batek fisikoki prestatu behar du. Eszenatoki batean egoten jakin behar du, ibiltzen, geldirik egoten jakin behar du, urduri jarri gabe. Klasea hastera doa».

Elena Aranbarri Kultur Etxeko antzerki tailerreko irakaslearen hitzak dira horiek. Urriko lehen astean ekingo die eskoletan, eta «jende guztia» animatu nahi du tailerrean parte hartze- ra. Hain zuzen ere, interesa duenak egunotan eman dezake izena, Kultur Etxean bertan. Eskolak astelehen eta asteazkenetan emango ditu Aranbarri, 19:30etik 21:30era.

Irakaslearen esanetan, eskolak ez dira soilik aktore izan nahi dutenentzat. «Lantzen ditugun testuak oso mesedegarriak dira denontzat. Izan ere, esperientziak dira, gizakiaren etengabeko ikasketaz aritzen dira, emozioak, bizipenak, sentimenduak eta baloreak islatzen dituzte».

Aurreko urtetako antzerki teknikarekin jarraitzeaz gain, aurturteko teknikak landuko

dute, bereziki. Horretarako, erlajazioa eta arnasketa ariketak egingo dituzte, besteak beste.

Ekaina inguruan, ikuskizuna

Kultur Etxeko antzerki tailerreko ikasturteak beste urtetako eskema bera izango du aurturtean. Abendua arte, teknika landuko dute ikasleek; eta ondoren, urtariletik aurrera, ikuskizuna prestatzeko ekingo dute. Emanaldi hori ikasturte bukaeran, ekaina inguruan, eskainiko dute, Leidorren.

Joan den ekainean *La Marra* ikuskizuna taularatu zuten antzerki tailerrekoek, eta Aranbarri oso pozik agertu da muntaiarekin: «Antzerkia eta ikusentzunezkoak uztartu genituen emanaldian, eta menpekotasunak ziren ardatza. Lan handia egin genuen ikuskizuna aurrera ateratzeko, eta oso pozik gaude emaitzarekin. Baita jendearen erantzunarekin ere».

Ikasturte bukaerarako beste ikuskizuna prestatzeaz gain, *La Marra* Tolosatik kanpo ere taularatu nahi dute. Gainera, laster proiektu berri bati ekingo diote: «Ez dut ezer aurreratu nahi. Baina ziur nago guztiontzat oso interesgarria eta aberasgarria izango dela, eta aurrerapausoa batera onentzat».

ANTZERKIA ▶

Amarozko Antzerki Artisauen bilera, bihar

Amarozko Antzerki Artisauak ikasturte berriari begira jarri dira honezkeroko. Ordutegiak eta saioak zehazteko eta jendeari izen-emate epea zabalik dela jakinarazteko, bilerara deitu dute. Bihar izango da, 19:30ean, Amaro auzoko lokaletan. Iaz bezala, aurturteko May Gorostiaga izango da irakaslea. Izena eman edo informazio gehiago jaso nahi duenak bileran izango du aukera.

POLITIKA ▶



Manifestazioa, herenegun, Tolosako Alde Zaharretik. IÑIGO TERRADILLOS

Manifestazio jendetsua, Gudari Egunean

Eskualde mailako manifestazioa egin zuten Tolosan herenegun iluntzean, Gudari Egunean. Jende askok egin zuen bat herriko kaleetan, gudarien omenez. «Gudariei omena egiteko modurik hoberena Euskal Herriaren eraikuntzan jardutea da, antolatzea eta borrokari ekitea», diote. Duela 36 urte Txabi Etxeberrieta zendu zenetik egun arte «bidean gelditu diren 202 gudariak» oroitu zituzten mobilizazioan. Asteburu guztian ere, xede bera oinarritzat hartuta, zenbait ekitaldi egin dituzte Gaztelun, Zizurkilan eta Larraitzen, besteak beste.

DANTZA ▶

Udaberri dantza taldeko kide izateko aukera

Datorren urriaren 9an ekingo die Udaberri taldeak haurrentzako dantza ikastaroei. 6 eta 13 urte bitarteko haur eta gaztetxoek daude zuzenduta, eta larunbatetan eskainiko dituzte. Horietan izena eman nahi duenak badu dagoeneko aukera: gaur eta etzi, 20:00etatik 20:30era, eta urriaren 6an, 20:00etatik aurrera, taldearen egoitzan —Igarondo igerilekuaren ondoan—.

HITZALDIA ▶

Psikomotrizitatea hizpide, gaur, Kultur Etxean

Iaz bezala, 2004-2005ko ikasturterako ere, ikastaroez gain, eskolaz kanpoko hainbat jarduerak ere prestatu dituzte Helduen Hezkuntza Iraunkorrean (HHI). Gaur, besteak beste, hitzaldia antolatuko dute. Dori Dobon Yagüe adituak *Psikomotrizitatea* izango du hizpide, Kultur Etxean. 18:00etan hasiko da saioa. Jende guztia erantzutaz irekia dela gogoratu dute HHI-koek.

IKASTAROA ▶

Yoga ikastaroa ostiraletan, HHI-k antolatuta

Tolosako Helduen Hezkuntzako (HHI) Ikasleen Elkarteak yoga ikastaroa antolatuko du. Ostiraletan izango dira eskolak, eta bi ordutegi daude aukeran: goizez, 10:30etik 12:30era; eta arratsaldean, 17:30etik 19:30era. Izena eman nahi duenak Tolosako HHI-ko egoitzara joan besterik ez du: Igaralde, 23. 943 67 26 60 telefono zenbakia. Argibide gehiago ere jasoko ditu bertan.

ANOETA ▶ UDALA

la hiru mila euroko mailegua eskatu dute kiroldegia egiteko

Hogei urteko amortizazio epea izango du Udalak ordaintzeko; herenegungo ez ohizko udalbatzarrean erabaki zuten

JOXEMI SAIZAR

Udalak Kutzari 2.983.000 euroko mailegua eskatzea onartu zuen herenegun iluntzean egin zuen ez ohiko udalbatzarrean. Mailegu horrek hogei urteko amortizazio epea izango du, bi urteko gabealdia barne, eta baldintzak berriz, Mibor gehi 0,2ko interesak izango dira. «Mailegu hau inbertsioetarako bakarrik erabiliko da eta bere helburu nagusia Ikastolaren ondoan eraikitzen ari den kiroldegi berriaren gastuei aurre egitea izango da», adierazi dio Hitzari Fidel Azpiroz alkateak.

Udalbatzar horretan, eta lehen aipatutako puntuarekin lotuta, tramite luzea duenez, tarte horretan ordainketak egiteko eta defizitari aurre egiteko diruzaintzaren kreditua eskatu du Udalak. Kreditu hori milioi bat eurokoa da—lehen aipatutako kopuruan dago sartuta—eta baldintza berdinak ditu.

Herenegungo batzarrean beste bi puntu ere izan ziren mintzagai. Lehenengoan,



Ez ohiko batzarra egin zuten herenegun udaletxean. GARBINE MENDIZABAL

2003ko ekitaldiko aurrekontuari buruzko likidazioa onetsiz, alkatetzak ebatzitako dekretuaren berri eman zen. Ontzat eman zen eta Foru Aldundira espedienteak bidaltzea erabaki zen.

Azken puntuan, pertsonal datuekin fitxeroen eraketa eta horien babeserako ziurtasun

dokumentua onartzea proposatu zuten. «Udala 1999ko lege hori onartzera behartuta zegoen eta orain arte ez zaio jaramonik egin. Onartu ezean zigor batzuen arriskua zegoen», adierazi du alkateak.

Hurrengo ohiko udalbatzarra urriko lehen ostegunean izango da.

TOLOSALDEA ▶

Galtzaundiren autobusak Kilometroetara

Besteetan bezala, Galtzaundi Euskara Taldeak autobusak antolatu ditu igandean Zarautz-Oriola joateko ikastolen aldeko Kilometroetara. Izen-ematea ostirala bitarte egin daiteke Nafarroa 6, beheko (Tolosa) egoitzan 19:00etatik 21:00etara 9 eurotan (baskideek 6 euro). *Itsaso zahar, olatu berri* da aurtengo edizioaren leloa. Bi ibilbide izango dira, bata Zarautzen eta bestea Orion, elkar lotuta.

ASTEASU ▶

Gaur 17:00etan haur antzerkia

Lehenengo ostiralean hasitako kultur jardunaldiak jarraituz, gaur arratsaldean haurrei zuzendutako antzerki emanaldia izango da. Saioa 17:00etan hasiko da Kultur Etxean. Ostiralean Hodei truk eta Igantziko gazte abesbatzen emanaldia izan zen eta datorren ostiralean Haurren II. Ziklo krosa izango da, maila desberdinetan, Lamitegi zirkuituan. Datorren astean ere izango dira kultur ekitaldiak: film bat eta zehaztu gabe dauden pilota partiduak.

TOLOSA ▶

Oskorri entzuteko sarrerak salgai Kultur Etxean

Ostiral honetan, urriak 1, Oskorri musika talde ezagunak kontzertu bat eskainiko du Leidor zineman 22:30ean. *Desertore* izeneko azken diskoa aurkeztuko du bertan. Emanaldirako sarrerak salgai daude Kultur Etxean 8 eurotan (6 euro gazte txartelarekin). Talde honetan Xabier Zeberio eta Josu Salbide tolosarrak dira partaide.

ANOETA ▶

Herenegungo istripuko lekukoak behar dira

Herenegun goizean Tolosatik Anoetarako GI-3650 errepi-dean izan zen istripuko lekukoak behar ditu Ertzaintzak istripua argitzeko. Istripua astelehenean 11:20ean izan zen. Seat Ibiza auto batek emakume bat harrapatu eta ondoren Donostiako Ospitalean hil zen. Hiritarren laguntza eskatu du Ertzaintzak eta 943 53 91 25 telefonoa jarri du lekukoaren esku, istripuaren arrazoiak argitu ahal izateko.

TOLOSA ▶

Tolosa Bizirik-en batzarra bihar udaletxean

Bihar 20:00etan udaletxeko batzar aretoan Tolosa Bizirik plataformak batzarra egingo du. Egoera politikoaren azterketarekin batera, TBko udal ordezkariak udaletxean parte hartu ahal izateko eman dituzten urratsak eta hauen emaitzak azalduko dira. Bazterketa egoerari aurre nola egin eta Tolosan nola eragin aztertuko da.

ANOETA ▶

Dantza eta pilota eskoletako ordutegia

Anoetako Udaletik jakinarazi dutenez, dantza eta pilota eskoletako ordutegiak eta zerrendak ikusgai daude Ikastolako tabloian. Beraz, izena eman duten ikasleek bertan ikus ditzakete zein ordutan



Bat Garajea
Ondo pasa Irurako jaietan!
Telf.: 943692205 • Faxes: 943693771 • Ibaiondo Indus.11 • 20271 IRURIA

JOSEAN ITYRGINTZA
Kale nagusia, 30 • 943 69 33 52 • IRURIA

- iturgintza
- berogintza
- gasa
- gasoilezko instalazioak

656 41 68 08
656 41 69 30

ALDABA ▶

**Ekitaldi ugari
San Migel jaiei
azken egunean**

San Migel eguna izanik, ekitaldi ugari antolatuta dituzte gaurko aldabatarrek; 11:00etan meza nagusia izango da; 12:00etan hamaitakak egingo dute, eta gauean afari herrikoia. 23:00etan, Ainara eta Mirenekin erromeria egin ondoren amaituko dira jaia.

ALBIZTUR ▶

**Jaien balantzea
egiteko bilera,
Kultur Etxean**

Aurtengo jaien martxa aztertzeko eta balantzea egiteko, bilerara deitu du Udalak gaurko, era berean, hurrengo urteko jaietako egitaraua osatzen joateko ideiak biltzen hasteko asmoa ere agertu dute udaletxetik. Bilera Kultur Etxean izango da, 21:00etan.

BIDEGOIAN ▶

**Hitzaldia eta
diapositibak,
bihar eta etzi**

Drogomenpeketasunaren prebentzioa familian hitzaldia eskainiko du Txus Kongil adituak bihar balioanitzeko gelan, 15:00etan hasita. Etzi, Ion Belokik *Jainkosaren al-tzoan* mendi espedizioen diapositiba emanaldia eskainiko du 20:00etan balioanitzeko gelan.

IKAZTEGIETA ▶

**Aerobik
ikastaroan izena
emateko aukera**

Astearteetan eta ostegunetan, 19:00etatik 20:00etara, aerobik ikastaroa eskainiko da, ikastaroan hasi nahi dutenek udaletxera (943 65 33 29) edota kiroldegira (65 20 46) deitu dezakete izena emateko. Horretarako azken eguna, ostirala, urriaren 1a, izango da.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.
Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Orendain. Medikua: 65 55 95
Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ Iurramendi egoitza: 67 03 25
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20
▶ Tolosa gasa: 67 53 20
Villabona-Aiztondo.
Anbulatorioa: 00 69 70

GARRAIOAK

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Tolosaldea bus: 65 06 21
▶ Leitza autobus.: 948 221015
▶ Taxia: 67 04 20
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04
▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32
▶ Tipi ttpa ald.: 948 631888
▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
▶ Arramele-AEK: 67 12 14
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Santa Maria, I., Nafarroa Etorbidea, 2. 943 65 46 10.
Plaza, M., Elbarren, 36 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
villabona_aizt@tolosaldeko-hitza.info
Anoetaaldea. 687 41 00 22
anoetaaldea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegaldea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzalde. 687 41 01 18.
leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Hyundai Lantra salgai; sei urte. 686870407.

MIKEL BELLOSO ▶ PILOTARIA

«Afizionatu mailatik profesionalera salto handia dago»

Asegarce taldearekin orain dela
hilabete inguru kontratua sinatu zuen
Mikel Belloso pilotariak



O.ESKITXABEL

OLAIA ESKITXABEL

Afizionatu mailan jokatzeko Mikel Belloso pilotariak; izatez tolosarra, urte askoan Bidan nian bizi izan da. Asegarce taldearekin sinatu ondoren, debutatzeko momentua iristeko irrikaz dago; bitarte horretan, ez du deskantsurik hartzen; gogor entrenatzen ari da, ikasketak aurrera ateratzeaz gain. **Asegarcekin lau urteko kontratua sinatu berri duzu. Noiz izango da debuta?**

Ondo bidean, urtebete edota urte eta erdiko epean debutatuko dut profesional mailan. Debutatu ondoren, lau urtez ariko naiz Asegarcekin.

Zure ustez, zer ikusi dute zuegan lau urteko kontratuaren proposamena egiteko?

Kolpe freskoa izateaz gain, tantoa sartzen dakien pilotaria naizela diote. Eta, batez ere, hobetzeko eta ikasten joateko ahalmena dudala ikusi dutelako egin didate proposamena. **Zure ametsa lortu duzula esan al daiteke?**

Hemezortzi urte inguru dituzten eta ondo jokatzeko duten pilotarien ametsa da enpresaren batekin sinatzea eta gero pilotatik bizitzeko aukera izatea. Ni, momentuz, debutatzeko gogo nagia dutan dudarik gabe

emateko eta ikasteko prest. Hala ere, afizionatuen mailatik profesionalera salto handia dago, eta hori ohitzea oso zaila da; lan asko egin behar da.

Asko entrenatzen al zara?

Anizeto Lazkanorekin entrenatzen naiz Beotibar pilotalekuan; astean bitan izaten ditut entrenamenduak. Esperientzia handiko pilotariak etortzen dira entrenamenduetara (Unanue, Errasti, Mendizabal...) eta beraien azalpenak entzuten ikaragarri ikasten da. Eta punta-puntako pilotari horien artean ikusten naizenean, poza eta errespetoa sentitzen ditut.

Urduritasuna menperatzen ikasi al duzu?

Saiatz taldean zortzi urte ingururekin partidak jokatzeko hasi nintzen; hasieran, partida gutxi irabazi eta asko galtzen nituen; beno, hori aurrerago ere gertatzen zitzaidan. Baina, ikasten joaten zara, pixkanaka-pixkanaka. Hasieran galtza zuriak jantzi eta jendaurrean aritze hutsak urduri jartzen ninduen; pilotalekuaren erdian jarri eta akatsak egitean, jendeak zer pentsatuko ote zuen beldur izaten nintzen. Pixkanaka, ohituz joaten zara eta lasaioago hartzen duzu. Urteen poderioz lotsagabete egiten zara, zentzu horretan. Hala ere, oraindik,

hainbat final eta finalerditan urduri jartzen naiz oharkabean.

Unibertsitatean ere ikasten ari zara. Zaila egiten al da aldi berean ikasi eta pilotari jokatzea?

Kirolean lesioak direla-eta ezin da jakin zer etorriko den. Ikasketekin aurrera jarraituko dut baina malgutasunez; hiru urteko karrera bost urtetan amaituz gero, ondo. Lau urtean profesionalean aritu eta karrera amaituta izatea espero dut; horrela, pilotari zereginik ez dagoela ikusiz gero, karrera baliagarria izango zait lana bilatzerakoan.

Txikia zinenetik eta orain dela bi urte arte aita izan duzu laguntzaile.

Aita kirolzale amorratua izan da beti eta berari esker sortu zitzaizkion pilotarekiko zaletasuna. Lau urte inguru nituenen hasi nintzen pilotari oker josten; Tolosan bizi ginen orduan. Bost urte inguru nituenen Bidaniara joan ginen bizitzera; bertako pilota eskolan, Luis Galarragarekin hasi nintzen jokatzeko. Astean bitan entrenatzen nintzen eta amaitzen, aitarekin jokatzeko nuen; akatsak zuzentzen aritzen nintzen berarekin. Asko jardun dut aitarekin; asko ikasi dut berarekin. Hamalau urte nituela apustua egin genuen elkarren aurka Bidaniako pilotalekuan eta 22-21 irabazi nion; orduz geroztik ez du jokatzeko proposamenik egin.

IBARRA ▶ KIROLAK

Lehenengo garaipena Ibarrarentzat

7-3 irabazi zuen larunbatean Errioxako Tomas-Mingot taldearen kontra

IÑIGO TERRADILLOS

Larunbatean iritsi zen Ibarra areto futbol taldearentzat denboraldi berriko lehen garaipena. Ligako hirugarren partida etxean, Belabieta kiroldegian, jokatu zuten ibartarrek Logroño (Espainia) Tomas Mingot taldearen aurka eta uste baino errazago hartu zituzten aurkariak mende.

Lehenengo minututik nabari zen aldea bi taldeen artean eta laugarren minutuan markagailuan islatu zen hori Pradosek, Errioxako taldearen defentsa garaitu ondoren, 1-0koa egin zuenean.

Jaun eta jabe zen Ibarra, baina, hala ere, zazpigarren minutuan, ustekabeko eraso baten ondoren, banako berdinketa lortu zuten aurkariak.

Ibarrak ez zuen indarririk galdu gol horregatik, eta erasoari ekin zion berehala. Segundu gutxi iraun zuen berdinketak, kasu horretan Karrearen eskutik iritsiko baitzen Ibarrakontzat bigarrena arrasean egindako tiro batekin. Bost minutu pasatu zirenean aldea handitu zuen Ibarrak, Kristianek gurutzaturiko tiro bat egin eta gola sartu zuenean.

Bi taldeek erritmo azkarrekin hasi zuten partida eta ondorioz, falta asko egin ziren berderatzigarren minuturako bosna falta batu zituztelarik.

Penalti bikoitz baten ostean, 4-1koa egin zuten ibartarrek. Labakak penaltia jaurtitzean

huts egin zuen, baina baloia berari etorri zitzaion berriz ere, eta oraingo honetan, atezain errioxarra aurrean zuela, sare barrura sartu zuen baloia. Atsedendaldirako, hiru goleko abantailaz ziren Ibarrako mutiak.

Harmailetan jendea pozik zegoen taldea burutzen ari zen partidarekin, eta lasai zeuden asko aldatu beharko baitziren gauzak partida honek eskutik ihes egiteko.

Berdin hasi zen bigarren zatia ibartarrentzat. Lehenengo minututik baloiaren jabe egin ziren eta zazpigarrenean Karrearen eskutik, berriro ere, 5-1ekoa igo zen markagailuan.

Alde nabaria zutela ikusirik, entrenatzaileak taldeko gazteenak ateratzea erabaki zuen, hauek minutu batzuk jokatzeko ikusteko asmoarekin. Une horretan, bi taldeen arteko maila zertxobait berdindu zen eta biek ere erasoan jarraitzen bazuten ere, ez zen golik iritsiko partida amaitzeko sei minutu falta ziren arte. Errioxarrek gola egin zuten, eta segituan Pradosek Ibarrarentzat sartu zuen berriro. Hurrengo jokaldian 6-3 jarri zuen Tomas Mingot-ek markagailua eta 20 segundo falta zirela Yarzak azken gola egin zuen 7-3 rekin ospatu zutelarik garaipena.

Partida erraza izan zen eta ondo etorriko zaio taldeari animoak handitzeko. Hurrengo partida Arnedon izango dute Virgen de Vicoren aurka.

IBARRA ▶ XAKEA

III. Ibarra Herria Xake Txapelketan bigarren geratu da Ibarrako taldea

Haurrek ere xakean aritu ahal izan zuten xake joko erraldoiarekin

I. TERRADILLOS

Ignado goizean III. Ibarra Herria Saria Xake Txapelketa jokatu zuten Ibarrako Euskal Herria kalean. Ibarra Xake Elkartek antolatu zuen txapelketa, eta Eibar, Erreterria, Zornotza (Bizkaia) eta Logroño (Espainia) taldeak izan ziren, besteak beste, gonbidatuak.

Ibarrak Erreterriako taldearen atzetik eman zuen taldeka bigarren saria, eta jokalarionenari eta jubenil onenari ere banatu zizkieten garaikurrak. Sari banaketaren ondoren, parte-hartzaileen artean bazkaria egin zuten.

SAILKAPENA ▶

III. IBARRA HERRIA SARIA

Taldea.

- ▶ Erreterriako Fomento Beraun-Bera.
- ▶ Ibarrako Xake Elkartea.
- ▶ Logroño Xake Taldea.

Jokalarionena.

- ▶ Juan Benito.

Haurrek ere izan zuten gozatua xakearekin, xake joko erraldoia ipini baitzuten; asko izan ziren gerturatu eta jolasen aritu zirenak.



Jokalariek, xakean. I. TERRADILLOS



Jubilatuak beraien eguna ospatu zuten

LEABURU ▶ Pasa den igandean, hilaren 26an, Jubilatuen Eguna ospatu zuten Leaburu-Txaraman. Leaburuko San Pedro elizan egindako mezaren ondoren dantza saioa izan zuten bertaratu zirenenek. Bazkarirako

Zazpibide elkarteak bildu ziren izena eman zuten jubilatuek, eta bazkalosteko alaitasuna trikitilariak jarri zuten. Amaieran, opari banaketa ere egin zuten. Urtero 60 lagun inguru elkartzen dira bazkarian. I. TERRADILLOS

iragarki laburrak ▶

BASABI Inmobiliaria
Pablo Garmatzel, 40
1. planta - 7. bulegoa
23400 TOLOSA
Tel. eta Fax: 943 60 35 87
mug.: 669 368 994

Aizarnazabal. Txakoli-saila duen 50.000 m²-ko lursaila salgai.
Albiztur. Etxe rustikoa salgai; hiru solairukoa. Solairu bakoitza 120 m², eta 200 m²-ko lursailarekin. Bizitzera sartzeko prest.
Anoeta. Etxea duplexean salgai; garajea aukeran.
Belauntza. 1.060 m²-ko pabilioia salgai; erabat garbia, argitsua eta garabiarekin.
Donostia. Hotel Costa Vasca inguruan, 94 m²-ko bulegoa salgai; banatzeko aukera.
Donostia. 104 m²-ko etxebizitza

salgai Colon pasealekuan. Ikuspegi zoragarriak ditu eta erabat berritua dago.
Donostia. Elkano kalean, berritzeko etxebizitzak daude salgai.
Gaintza (Nafarroa). 3 solairuko baserria salgai; berritzeko.
Ibarra. 75 m²-ko pabilioia salgai, nekazaritzarako egokia den 2.500 m²-ko lursailarekin.
Ibarra. 95 m²-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira.
Ibarra. Guridi maisua kalean 85 m²-ko etxebizitza, eguzkitsua, kanpoaldera begira eta hornitua.

Ibarra. 75 m²-ko etxebizitza. Berritzeko. Lehenengo pisua; kanpoaldera.
Irura. 52 m²-ko apartamentua salgai; beheko solairuan, lorategiarekin.
Itsasondo. Eraikuntza berriko etxebizitzak; duplexa eta lorategia beheko solairuan.
Lasarte. Egoera bikainean dagoen 62 m²-ko etxebizitza, kanpoaldera begira.
Legorreta. 1.000 m²-ko pabilioa salgai, 5.000 m² dituen lursailaz hornitua, erosteko edo alokatzeko.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabilioia, eraikuntza berrikoa.
Segura. Erabat berritua dauden 60 m²-ko eta 90 m²-ko bi etxebizitza salgai.
Tolosa. Erremontari kalean berritua dagoen etxebizitza salgai, 2. gela, egongela-sukaldea, bainugela eta trastelekuarekin; kanpoaldera begira.
Tolosa. San Esteban auzoan, 76 m²-ko etxebizitza salgai; hiru fatxada ditu; oso eguzkitsua.
Tolosa. Nafarroa etorbidean 140 m²-ko etxebizitza salgai; garajea erosteko aukerarekin.

LEITZA ▶ POLITIKA

Gudariak gogoratzeko manifestazio isil jendetsua

Kaleetan zeharreko ibilbidea hainbat agentez inguratuta egin behar izan dute



Manifestazioa herriko auzo guztietatik igaro zen. Irudian Lesakeneko atarian. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Astelehen iluntzean, zortziak inguru horretan abiatuta, manifestazioa Leitzako kaleetan barrena ibili zen, *Gudarien borroka, herriaren indarra* lema zeraman pankarta buruan zue-

la eta bidea irekiz, oihal beltza zeraman ikurriña zihoan, bi manifestariren eskutan. Berrogeita hamar-hirurogei lagun bildu ziren eta herriko auzo guztiak isiltasunean ibili ondoren, hasierako lekuan, plazan, bukatu zen.

Ekitaldiari bukaera emateko, ibilbidea egin ondoren, komunikatu bat irakurri zen, *Gudarien Eguna* zela eta, «azken 36 urte hauetan hil diren 202 gudariak», gogoratzu. Besteak beste, egungo egoera politikoa ere aipatu zuten, batez ere

EAEko Ibarretxeren Planari zegokionez eta «estatutu berriari ezezkoa esaten» zioten arren, «autodeterminazioa eta herriari hitza ematearen oinarriaren gainean, adostasunak bilatzeko prest», zeudela adierazi zuten, «Ibarretxeren Atarikoak horretarako aukerak eskaintzen» dituela erantsiz.

Ekitaldi politikoa, *Eusko gudariak* kantatuz bukatu zuten.

Eta plazako irakurketa hasi bezain laister, han barreiatuta zeuden uniformedun agenteak erretiratu egin ziren. Izan ere, manifestazioa hasi baino minutu batzuk lehenago, jendea plazara biltzen ari zen garaian, bertara kasko eta porraz hornitutako hainbat agente uniformedun azaldu ziren.

Manifestazioa baimendua izaki, jokabide haren zergatiak galdetuta, «manifestazioari bidea irekitzera» etorriak zirela erantzun omen zieten, deitzalei. Manifestariek, aurre eta atze, ibilbide guzti-guztia, agentez inguratuta egin behar izan zuten.

LEITZA ▶

Aurrerak 1-0 galdu egin du altsasuarrekin

Lehenengo larunbatean jokatutako partidua, 1 eta 0ko emaitzarekin, galdu egin zuen Aurrera futbol taldeak, altsasuarren zelaian. Zelaira gerturatu zirenek adierazi zuten, aurkariaren gola hartu ondoren, leitzarrak atzean bildu ziren eta asko kostatu omen zitzaizkien aurkariaren ate ingurura atera eta ailegatzeko. 2. zatiko azken hamar minututan jokoa hobetu bazuten ere. Partidua hasi baino lehen, aipatzekoa da, istripuz hil zen Altsasu KEko kapitain zenari omenaldia eskaini ziotela zelaian.

LEITZA ▶

Gorbeiarako irteera ez da egin asteburuan

Mendibil mendi taldeak asteburu honetarako antolatuta zuen Gorbeiarako mendi irteera ez zen burutu. Igandean ziren joatekoak, baina ikusita, autobusa ez ezik, autotz joateko haina jende ere ez zela apuntatu, antolatzaileez gain, beste hiru lagunek bakarrik eman omen zuten izena, egin gabe gelditu zen.

LEITZA ▶ GIZARTEA

‘Gerrak munduan’ gai hartuta, hitzaldia bihar Aurrera elkartean

Maxurrenea herrintzat ekimenak daraman ildoan, IKA euskaltegiaren txandaz oraingoan

J. ASTIBIA

Bihar, osteguna, hilak 30, 20:00etatik aurrera, *Gerrak munduan* izenburupean, hitzaldia emanen du Luzio Tabarrek, Aurrera elkartean.

Tabar, Gerrarik ez taldeko kidea da, antimilitarista, eta gerrak sortzearen zergatiak, eragileak, interesak, armen mer-

katua, justifikagarriak diren... bezalako gaietaz ariko da.

Ekitaldi hau Maxurrenea herrintzat herri ekimenak daraman dinamika baita dago, izan ere, ekimen horren bulkatzaila diren herriko 38 taldek, txandaka, hilabeteko kultur ekitaldiaren bat antolatzeke erabakia hartu zuten, aldarri-



Maxurrenea etxea, kultur ebetarako nahi zuen herriak. Nafarroako Gobernuak koartela egin zuen bertan. HITZA

kapenari eusteko asmoz. Kasu honetan, IKA euskaltegiak antolatuta du.

ARESO ▶ GIZARTEA

Alustiza ez da gustura etorri Oñatiko saiotik

Nazioarteko Artzai Txakurren Txapelketan ‘Argi’ bere zakurra ez da oso argi ibili-eta

J. ASTIBIA

Igandean, Oñatin jokatu zen Nazioarteko Artzai Txakurren Txapelketa eta han zen Antonio Alustiza ere, *Argi* bere zakurra ere. Baina ez zen oso gustura etorri aresoarra, han ere ez zuelako ardiekin lanean aritzeko aukerarik izan, obedi-entzia frogan «banderinen artetik, gora ongi atera ginen, han 3 kanpotik pasa bazituen

ere. Baina handik, zuzenean arditara sartu zen, nik agindu gabe eta han galdu zuten», zioen artzainak. «Lana ez zuen ongi egin zakurrak, han nahi duena egiten hasten da, etxean ez bezala. Harrigarria da nola aldatzen den», esanez, ez zion argibiderik bilatzen.

Hala ere, ez du etsirik hartu Alustizak «hurrengo urterako gazteren bat prestatu eta berri-zaletuko naiz», adieraziz.



www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko irailaren 29a, asteazkena ▶ II. urtea

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

22

hotzera

16

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Aliza, Alzo,
Amoceta, Anoeta, Balaran, Belauntza, Berastegi, Edoain,
Hernialde, Iruña, Iruña, Lantza, Leizaburu, Lizartza, Orendain,
Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurkitza.
Kultura Saila



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zaltzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

AURKITUTAKOAK

Belauntza-Ibarra. Buru urdineko perikito zuria aurkitu dute. 943 67 02 89 telefonora deitu.

Ibarra. Motxila txiki bat aurkitu dute bizikleta osagarri batzuekin. Deitu 696 79 17 93 telefonora.

DEIALDIAK

Albiztur. Aurtengo jaien balantzea eta hurrengo urteko jaietako egitaraua antolatzen joateko bilera Kultur Etxean 21:00etan.

Asteasu. Asvinenea taldeak *Bi zazpi edo ez zazpieta bi haur* antzerkia eskainiko du 17:00etan Kultur Etxean.

Ibarra. Garagardo Festan parte hartu zutenek, nahiz herritarrek dute aukera larunbatean Lasturrerako irteeran parte hartzeko. Txartelak Zubiaurre, Arkaitza-Azpi, Danon Txokoa eta Danok tabernetan eros daitezke 23 euroen truke.

Tolosa. Yoga elkarteak antolatuta, Kontzientzia Globalari buruzko jardunaldiak. *Barneko bakea.* Manuel Paz Madhava, Santana Dharma yoga eskolaren sortzailea eta lehendakari eta meditazio irakaslearen eskutik Kultur Etxean 20:00etan.

Tolosa. Dori Dobon Yagüe adituaren *Psikomotrizitatea* hitzaldia. 18:00etan Kultur Etxean. HHLK antolatuta.



TXINA ▶

Pablo, Onintza eta Dani (Tolosa).

Opor hauetan tolosar hauek Shanghain agertzen ditu argazkiak. Hau diote: «Txinako zenbait txokotan ibili ondoren, Shanghai, Pekin, etab. Tolosako bizimodura berriro ere ohitzeko ahalaginetan gaude. Animo, egoera horretan dauden guztiei». Animatu eta bidali zuk ere oporretako argazkia. Azken orrialde honetan sartuko dugu.

'HI, GAZTE!' ▶



Aldizkaria. *Hi, gazte!*

Tolosa.

Zenbakia. 7.

Orrialdeak. 16.

Tirada. 2.500 ale.

Gai nagusia. Badatorrela Gazte Topagunea!

Gaiak. Ikastaroak; Kontaktuak; Kilimak; Hiztegia; Badakit; Testing programa: drogen kontsumo ludikoarekin loturiko arriskuak gubitzeko proiektua; Disko-liburu eta Gazteentzako agenda.

Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldeak Tolosako Udaleko Gazteria Sailarentzat eginiko lana.

▶ Nafarroa etorbidea 6, behea. Tolosa.

▶ 943 65 50 04

▶ higazte!@euskalerrria.org

▶ Doako alea.

Tolosa. Igandean Zarautz-Oriko Kilometroetara joateko autobusa antolatu du Galtzaundi Euskara Taldeak (943 65 50 04).

ERAKUSKETAK

Tolosa. Ricardo Marquezek

zapatekin egindako irudiak lurreko Oskarbi tabernan.

Tolosa. Txaro Medranoren koadroak Sorron dendan.

Tolosa. Olivia Sanchezen margolanak Lanbroa tabernan.

Tolosa. Marisa Vivancoren pinturak Saikin tabernan.

Hernialde. Leire Markinezen koadroak Ostatuan.

IKASTAROAK

Amezketak. Musika eskolan izen-ematea zabalik urriaren 2 arte. 690 34 90 09.

Berastegi. Eskolaz kanpoko ikastaroetan izena eman daiteke eskolan bertan.

Ibarra. Gimnastika erritmikoan izen-ematea. 629 11 20 61.

Ikaztegieta. Aerobik-erako izena udaletxean 65 33 29 edo kiroldagian 65 20 46 eman.

Tolosa. Gimnastika erritmiko eskolan izen-ematea lgarondo igerilekuan eta Tolosa CFko bulegoetan.

Tolosa. Udaberri dantzari taldeak 6 urtetik aurrerako haurrentzako euskal dantza tailerra antolatu du, larunbatero 10:00etatik 11:00etara lgarondo igerilekuan. Izan-ematea: Udaberriren egoitzan (lgaralde 6), irailak 29, urriak 1ean eta 6, 20:00-20:30.

Tolosa. Peñascal Fundazioak Lanbide Hastapeneko ikastaroen matrikula epea ireki du. 943 67 61 61

Tolosa. Izaskun Arriola irakasleak areto dantza ikastaroa emango du Iturriza elkartean (Euskal Herria plazako jubilatueko egoitza) astelehenetan eta ostiraletan 16:00etatik 17:00etara. 30

orduko ikastaroa izango da. Izan-ematea egoitzan, 16ko taldea osatu arte.

Villabona. Euskara ikasteko laguntzak. 943 69 35 01.

JAIKAK

Aldaba. 11:00etan meza nagusia; 12:00etan, herritarrentzat hamaiketakoa, 21:00etan afari herrikoia eta 23:00etan erromeria Ainara eta Mirenekin.

Iruña. Txistularien goiz eresia 09:00etan; herriko zaindariaren omenezko meza nagusia 11:00etan; ondoren dantzari txikien saioa eta hamaiketakoa bertsolariekin; Iruña, Zizurkil, Villabona, Ibarra eta Anoetako dantzarien saioa 18:00etan; eta Karidadeko Benta taldearen musika emanaldia 19:30ean.

ZORION AGURRAK ▶



ZORIONAK

Andres eta Ana Mari. Ea beste 50 betetzen dituzuen!
Familia guztien partetik.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago emarri. Mila esker!